

(I) ELHEKETA : ASTE HUNTAKO ELHEKETA

1. Kontabandistak mun bilduak dira?
2. Jan Batit nor da?
3. Jan Batit zer gizon da?

(II) ORTZANGO ERREKAN 3.

Hogoita bi gizon bilduak dire orai, mugaz haindiko borda zaharrean. Bostpasei gizon adinetako, gaineratekoak oro gazteak edo sasoin ederrekoak, begiak argi, oinak zallu, guziak gizon delibera-tuak.

Eta Jan-Batit, orok nausi-burutzat aspaldi onhartua dutena, huna mintzo non den, bere azken manuak erraiten diozkatela.

"—Alo, hots, muthikoak, ernatu behar diagu. Ez duk errana uri hau laster atherituko edo bederen eztituko ez dela. Lehen pottoka bigarrenari buzianetik estekaturik, bi pottokentzat bi gizon, batto-

zinean, bertzea gibelean. Senperek mugaino Saratarrak eta ainhoarrak aintzinean; Senperek mugatik eta harat, saratarrak gibelean, kabalen akulatzalea.

"Ez neri egin iragan gau horietarik batez bezala. Elgarretarik elun burratsetan, goazen erreka, eta nahiz ilhargirik ez den, itzalez itzal bethi. Mendibizkarrak begozi kasko arinentzat. Beholako gain hetarat ethorriko ziaguk Ganix, eta anhartean<sup>21</sup>, Fratxixko hor diaguk, begiak ernerik. Goazen beraz beldurrik gabe, bainan behariak xut, Ortzango errekan barna, Motxokobordari buruz, larrez larre bethi; eta gero, Bokaleko su handien parretik eskuin, bethiko gure bidetik. Bihar goizeko bortz orenak gabe behar gaituk Baionan, dakinuen ostatuko abere-barnean.

"Guardarik suertez agerbaladi, ez izi. Heienti rock ez dituk minik egin sekulan, gizon beldurtiari baizik.

Gainerat jin<sup>22</sup> bazaizkitzue, kolpe tzarrik<sup>23</sup> ez eman, bainan bai borroka eta inharros-aldi bat ona. Lehenbiziko makilakaska cmaiteko dia gaurko egunean oraino, eta zuek ere naski<sup>24</sup> hala hala. Ez gaituk gaur hasi behar. Ezinbertzean ohilduko<sup>25</sup> zaizte beraz, eta ari emanen, Otsansbehoreko Madalenarat gero atheratzeko.

"Bat edo bertze harrapatua balitz halere, eta ezin atheratu; balinbadugu guarden eskuetarik, bere onetan bazakikek harek ixilik egoiten, nehor guitarik salatu gabe sekulan. Eta ondoko egunetan badirek behar den laguntza guzia. Kolpe tzar bat harturik ospitalerat eremana balitz ere, hura sendatuxe orduko, otomobil bat baino gehiago izanen duk, haren toki segurerat eremaiteko; han hobe baituke lehenbiziko amiztiak arte, ezen ez eta Baionako presondegi ilhunean... Bazaiztea?"

"—Bagaituk".

Etherriko Ziaguk = il monsieurra

(III) ADITZ IKASKUNTA

31. Erraiten diozkatela 32. Ez gaituk.
33. Bazaizkitzue 34. Behar diagu
- 31-UKAN. Conj. à dble cplt. Indic. Pres.  
Objet plural - Cpt inder. plural  
Heienti = à eux.

Nik dizkiet (diozkate) = je les leur ai  
 Zuek dizkiegu (diozkate) = Vs - -- avez  
 Harek dizkies (diozkate) = Il - -- a  
 Guiek dizkiegu (diozkate) = No - -- avons  
 Zuek dizkiegu (diozkate) = Vs - -- avez  
 Heiek dizkiete (diozkatete) = Ils - -- ont  
32-IZAN. Tutoirement Indic. Present

- |                    |               |
|--------------------|---------------|
| Ni nuk (nun)       | = je suis     |
| Hi haiz            | = tu es       |
| Hora du h (dun)    | = il est      |
| Gu gaituk (gaitun) | = nous sommes |
| Zuek zaizte.       | = vous êtes   |
| Heik dituk (ditun) | = ils sont    |
33. IZAN. Régime inder. Indic. Present

- |                  |                 |
|------------------|-----------------|
| Heba dire        | = Ils sont      |
| Heik(eux) zaibit | = ils me sont   |
| zaizkezu         | = ils vous sont |
| zaizkiet         | = ils lui sont  |
| zaizkigu         | = ils nous sont |
| zaizkizue        | = ils vous sont |
| zaizkies         | = ils leur sont |